

LOS ANGELES, 2019
Mikel Aranburu Guridi
Urretxu

*Sekulako esperientzia da beldurrez bizitzea, ezta?
Hori da esklabu izatearen esanahia.*

Roy Batty

Neonezko mezu lausoeak ñir-ñir egiten dute irregu-
larki,
eta telebista-dendako pantaila itzalietan desitxura-
tuta ikusten da
nola asfalto bustian islatzen diren modu bitxian
plastikozko bota-pare batek mila pusketan hausten
dituen arte.
Berriro ere euria ari du bazter zurrunbilotsu haue-
tan.
Ibiltariak masa gris bat osatzen dute, aterkipean,
eta hodi herdoilduen zirrikituei darizkien lurrun-
zurruten artetik agertzen dira
gutxien espero duzunean.
Ibilgailuen burrunba da agertoki honen doinua,
doinu monotono eta etengabea, bihotz taupada
kaotiko eta erregularra.

Tarteka eskaleren baten edo eroren baten oihua
nabarmentzen da,
baina segituan galtzen da bere diskurtsoa motor-
hotsen artean.
Hemen beti da gau,
betiereko ke-laino toxiko eta mehatxariak ez baitio
eguzkiari agertzen uzten.
Hori, oraindik eguzkirik baldin badago
eta gerturatzeko adorerik badu.
Noizean behin,
euri azidoak bisitatzen ditu alde zaharreko harriz-
ko etxeak
eta pixka bat gehiago zulatzen ditu
kedarrez margotutako hormak eta teilatu lau mor-
tuak.
Aldiz,
erdialdeko etxeorratz berriek
geruza babesgarri berri bat dute (polipropileno-
koa)
eta ez zaie oraingoz ezer pasatzen.
Ibiltariak, gabardina lodien babesean, pausu tin-
koz darraite
buruan aurreprogramatutako prozesu konplexuak
aurrera eramaten.
Eskaleak eta eroak paper-geruza heze baten gaine-
an daude lo,
egunkari zaharrez estalirik, eta iragarkietako aur-
pegi irribarretsuak beraiei so.
Nanosegundo batez, ibiltari batek segurtasun-
kamera bati begiratzen dio mesfidantzaz.
Polizi-etxe nagusian galdutako gelaren batean,

zarata mekaniko labur batzuek oihartzun egingo
dute pasillo huts eta luzean
eta inprimagailu batetik, apurka-apurka, doku-
mentu labur bat aterako da:
ordua,
izena,
bizilekua.